

## V - BESTELAKOAK

### GASTEIZKO HIRI GARRAIOAK, SA

#### **TUVISAr**i** bizi-aseguru kolektiboen alorreko bitartekaritza eta aholkularitza teknikoa emateko zerbitzuak kontratatzeko lehiaketa, eta kontratazioa**

2018ko otsailaren 21ean onetsi zen 2018-04T zk. duen kontratazio-dosierra, bizi-aseguru kolektiboen alorreko bitartekaritza eta aholkularitza teknikoa emateko; baita aseguru-poliza horren kontratazioa ere.

1. Esleitzen duen erakundea: Gasteizko Hiri Garraioak SA (TUVISA); IFK: A01005230; Agirre-landa kalea, 2., 01013 Vitoria-Gasteiz, Espainia; Tel.: (34) 945 161054; posta elektronikoa: [tuvisa@vitoria-gasteiz.org](mailto:tuvisa@vitoria-gasteiz.org).

2. Kontratuaren xedea:

a. Xedearen deskribapena: langileen bizi-aseguru kolektiboaren inguruko bitartekaritza eta aholkularitza teknikoa ematea TUVISAr**i**, eta aseguru hori kontratatzea.

b. Kontratu mota: zerbitzuak.

c. CPV kodea: 66519310, 66511000.

d. Multzoak: ez.

e. Aldaerak onartzea: baldintza-agiriaren arabera.

3. Izapideak, prozedura eta esleitzeko era.

a. Izapideak: ohikoak.

b. Esleipen-prozedura: irekia.

c. Arautze harmonizatuari lotutako kontratua: bai.

d. Gauzatzeko epea: urtebetekoa.

e. Luzapena: urtebetez luzatu ahalko da.

4. Kontratuaren zenbatekoa, edo zenbatera artekoa:

a. Kontratuaren balio zenbatetsia, BEZ gabe. 770.000 euro.

5. Alderdi juridiko, ekonomiko, finantzario eta teknikoei buruzko informazioa:

a. Behin-behineko bermea: 6.000 euro.

b. Behin betiko bermea: kontratuaren urteko zenbatekoaren ehuneko 5, BEZik gabe.

c. Berme osagarria: ez da eskatzen.

d. Ordaintzeko modua: ikus administrazio klausulen agiria.

e. Balioespen-irizpideak: ikus administrazio klausulen agiria.

f. Sailkapena: ez da beharrezko.

g. Kaudimen teknikoa: ikus administrazio klausulen orria.

h. Kaudimen ekonomikoa: ikus administrazio klausulen orria.

- i. Kontratua gauzatzeko berariazko baldintzak: ikusi administrazio klausulen agiria.
6. Agiriak eskuratzea:
- a. Izena eta lekua: esleitzen duenarena.
- b. Agiriak eta informazioa eskuratzeko azken data: eskaintzak aurkezteko epea amaitzen den egunaren bezperako 13:00ak.
- c. Dosierra aztertzea: Dosierrak esleitzaiaren helbidean azertu ahal izango da, argitaratu ondorengo lehen egun baliodunetik hasi eta eskaintzak aurkezteko epea amaitu arte. Orobat kontsultatu ahalko dira Gasteizko Udalaren web orrian, Tuvisaren kontratzailearen profilean.
7. Eskaintzak aurkeztea:
- a. Aurkezteko epea: 2018ko apirilaren 16ko 13:00ak arte, bulego orduetan.
- b. Postaz igortzea: Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Araudi Orokorren 80.4. artikuluan adierazitako moduan egin ahal izango da. Postaz igorri gero, helbide elektronikoa honetara igorri behar da horren jakinarazpena: [tuvisa@vitoria-gasteiz.org](mailto:tuvisa@vitoria-gasteiz.org).
- c. Aurkeztu beharreko agiriak: ikus administrazio klausulen orria.
- d. Eskaintzak aurkezteko lekua: esleitzen duenaren helbidean.
- e. Lehiatzaileak eskaintzari eutsi behar dion epea: 6 hilabete.
- f. Eskaintzak irekitzea: garaiz jakinaraziko da.
8. Iragarkia Europako Erkidegoen Aldizkari Ofizialera bidali den eguna: 2018ko otsailaren 22a.
9. Europako Erkidegoen Aldizkari Ofizialera egindako bidalketaren erreferentzia: 2018/S 039-086424.

Vitoria-Gasteizen, 2018ko otsailaren 22an

*TUVISAko Administrazio Kontseiluko lehendakaria*  
**ITZIAR GONZALO ZUAZO**